

MADALEN LARRALDEKOAREN AZKEN ITZAK



Salve Regina.

«Lenago munduba da
Milla puska egingo,
Eta naiz eguzkiya
Osoro illunduko,
Bestela itsasoak
Lurra estaliko,
Fedearen kontra nik
Gezurra esan baño.

Ez dizute baliyo,
¡O jende gogorra!
Pensatzea naizela
Gazte bat argala;
Ez dezute ikusiko
Ez nigan negarra
¿Uste dezute zuek
Dedala beldurra?

Azken aldiz bear det
Nik orain, bai, esan,
Konfesatzen ninzala
Bera-ko elizan;
Lagunik ikustera
Ez nintzan ara joan,
Baizik apez bat anchen
Arkitzen ote zan.

Azken ordua dator
Urbiltzen, urbiltzen,
Eta kristau ill nai det
Zuei barkatzen:
Ez dakizute ¡ai! zer
Egiten dezuten:
Au pensatuarekin
Asko naiz poztutzen.

Jaungoikoaren Ama
Gure chit maitia,
Ni gatik bada orain
Erruki zaitia;
Ez dit neri ajola
Batere illtzia...
¡Artu zazu eskuan,
Bai, nere bizia!...»

Agur au egiñikan
Geldi zan isillik...
Eta *Salve Regina*
Gogoz kantaturik
Isilldu zan; ta illtzeko
Ondo prestaturik
Etsai gogor ayechek
Utzi zuten illik.

BONIFAZIO ECHEGARAY.

